



ALEA
arabako aldizkaria

SEKRETU BAKAR BAT GORDETZEN DUTE MASOIEK



**2018KO GRIPEAREN AURKAKO
TXERTAKETA KANPAINA**

*Arrisku-taldee edo 65 urtetik
gorakoei zuzendua.*

URRIAREN 24TIK AURRERA

GRIPCE

ZER GRIPCE?

★★★★

JARRI TXERTOIA



Osakidetza

30
URTE | **GRIPEAREN
AURKAKO
TXERTOAK
JARTZEN**





ALEA 171

2018-11-09 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

JUANMA GALLEGO

Manuel Iradier logiak Gasteizen dauka Jean Crouzet izeneko tenplua.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean:** Masoneria: sekretu zirenak argitzen ari dira.
- 10 **Protagonista:** Alfredo Ramirez @erreharria.
- 14 **Iritzia:** Itziar Rekalde.
- 15 **Iritzia:** Aintzane Urrutia.
- 16 **Sarean:** #Justizia
- 17 **Iruditan:** Txakurretatik ihesi.
- 18 **Gizartea:** Urbiako bidea moztuko dute.
- 20 **Politika:** Agerian geratu dira ordainketak.
- 21 **Ingurumena:** Gasteizera datoz naturazaleak.
- 22 **Esanak eta datuak.**
- 23 **Laburrak.**
- 24 **Zientzia:** Zientzia Astea abiatuko dute Gasteizen.
- 25 **Gizartea:** Igandean, Bizilagunak bazkaria.
- 26 **Kultura:** 'Kontraesanak', David Mangana.
- 28 **Gure Bazterrak:** Karkamu.
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena“

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibu Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Aintzane Urrutia, Itziar Rekalde eta David Mangana.

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Masoneria: sekretu zirenak argitzen ari dira

Manuel Iradier logian biltzen dira Arabako masoiak, eta bertan egiten dituzte haien bilkura eta errituak. Denbora luzez itzalpean izan den jarduna argitzen ari da pixkanaka, masoiek beraiek euren erakundeko funtzionamendua zabaltzen ari direlako. ALEA beraiekin egon da. Testua eta argazkiak: **Juanma Gallego**.



Gasteizko Manuel Iradier logiaren presidentea da aurten Jon Laburu enpresaria. Hortaz, masoienez, Maisu Beneragarria da. Logiaren ateak ireki ditu Laburuk ALEArentzat, bertan egiten dena erakusteko. Sekretismoa izan da urte luzez masoien ezaugarrietako bat, eta, gaur egun ere, zenbait sekretu gordetzen dituzte. Baina gero eta gutxiago dira, antza.

Zaila da masoneria zer den definitzea. Ez da erlijio bat, ezta sekta bat ere. "Sekta batean sartzea erraza da, baina ateratzea, oso zaila. Gurean, kontua guztiz kontrakoa da", azaldu du Laburuk. Argitu duenez, logian sartu nahi duenak hiru elkarrizketa igaro behar ditu, eta logiako kideen onespina jaso, boto sekretuaz egiten den bozketa baten bidez. Taldetik ateratzea, ordea, erraza omen da.

Bilkurak edo *tenidak* egin baino lehenago, gela batean biltzen dira. Bertan dituzte liburutegia eta errituetan erabiliko dituzten hainbat objektu. Tartean, masoiek erabiltzen dituzten mantala eta lepokoa. Hormetan logiari izena ematen dion Manuel Iradier esploratzailearen erretratua dago, eta baita Gasteizko tenpluari izena ematen dion Jean Crouzet masoiaren argazkia.

Gela horren barruan gela txikiagoak daude. Horietako bat hausnarketa gela da. Bertan, taldean sartuko den hasiberria

Manuel Iradier logiak tenplu bat du Gasteizen, eta bertan egiten dituzte haien errituak.

POLITIKARI EZAGUNAK, ENPRESARIAK, ABOKATUAK EDOTA KAZETARIAK DAUDE GASTEIZKO LOGIAN

edo ikastuna ordubetez egongo da, zeremonia hasi baino lehen. Begiak itxita eramaten dute hara. Beltzez margotuta eta sinboloz beteta dagoen gelaxka da: bizitza arruntaren galkortasuna adierazten duen buru-hezur bat, denboraren iragatea gogorarazten duen hareia-erloju bat, edota biziraupenaren beharraren oroitarazle diren ogia eta ura. Bertan ikastunak bere *testamentu filosofikoa* idatziko du, baina masoi bihurtzen denean idazki hori erreko dute, eta errautsak besterik ez dira geratuko, azken pentsamendu profanoen oroigarri moduan.

Sinboloak ez dira gelaxka horretara mugatzen: jaun eta jabe dira masonerian. Izan ere, alegoria erraldoi bat da mugimendua. Zertarako, bada? "Hobeak izateko edo hobeak izaten saiatzeko", erantzun du Laburuk. Duela hamarkada bat aurkitu zuen masoneria Laburuk, eta, atzera begiratzean, bere burua guztiz aldatu duela dio. "Ni politikagintzan arituko naiz, eta garai horretan neure ideiek besterik ez zuten balio niretzat. Masoneriak errespetuaren beharra irakatsi dit, eta bestearen lekuan jartzeko moduan nago orain".

Alegoria horien barruan, "delta argitsua" izenez ezagutzen den sinboloa dago: begi bat duen hiruki bat. Dolarreko billeteetan agertzen den sinbolo horrek Unibertsoaren Arkitektoa sinbolizatzen du. Jainkoa? "Batzuentzat jainkoa ordezkatzan du, baina ez guztientzat. Izan ere, gure artean fededunak, agnostikoak eta ateoak daude". Aniztasun horren ispilu, San Joanen arabera ebanjelioan irekita dagoen biblia bat dute bilkuretan, baina liburu horren alboan daukate ere Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.

Debeku eta sekretu bat

Debeku bakarra omen dago masonerian: ezin daiteke hitz egin erlijioaz eta politikaz. Eta sekretu bakarra: ezin daiteke ezagutarazi norbait masoia dela, lagun horrek masoi dela publikoki zabaldu ez badu, bederen. Batzuek "aitortza" hori egina dute (gurean, Javier Otaola Gasteizko sindiko izandakoa da agian ezagunena), baina beste hainbatek ondo gordetzen dute sekretua. "Gure logian, adibidez, badago arlo ekonomikoan garrantzi handia duen kide bat, eta horrek erabateko sekretuan mantendu behar du bere partaidetza. Hemen egon eta kazetari bat etortzekoa dela jakinez gero, berehala ospa egingo zukeen gela honetatik". Denetariko kide edo *senide* dira, 30 bat inguru, tartean "politikari ezagunak". Alderdi guztietako masoiak omen daude Manuel Iradier logian, "besteak beste, EH Bilduko kide bat". Gainerakoan, enpresariak, abokatuak edota kazetariak dira... bai gizonezkoak zein emakumezkoak.



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ



Hausnarketa gelan ordubetez egon behar du masonerian sartu nahi duenak, eta bertan testamentu filosofikoa idatzi behar du.

Azken datu hau ez da anekdotikoa. Mundu mailan bi joera nagusi daude masonerian: erregularrak eta irregularrak; tradizio britainiarra eta frantsesa, hurrenez hurren. Erregularrek ez dute onartzen emakumeen parte-hartzea, baina irregularrek bai. "Niretzat erregularrak senide dira, baina haiek ez naute senidetzat hartzen. Gure logiak dauden emakumeek ezetz diote, argi dute erregularrak ez direla haien senideak". Behin Alemanian erregularren bilkura batean sartzeko aukera izan zuela aitortu du Laburuk. "Nire burua bertan aurkeztu nuen, eta masoiok dugun pasaporteak erakutsi nien. Ez ziren konturatu nire logia irregularren tradiziokoa zenik".

Taldean sekretuan aritu izanak dezenteko buru-hausteak ekarri dizkio masoneriari historian zehar, eta konspirazioaren teoria ugari eratu dira gaiaren bueltan. Sekretuan biltzen den hainbeste jende garrantzitsu ikusita, ez al dituzte nahi izango munduaren norabideak aldatu? Ideia hori "gutziz gezurra" dela dio Laburuk, irmotasunez. Ideien inguruko eztabaidak egiten dituztela berretsi du, eta hori beste sinbolo baten bitartez adierazten dute: haien ideiak eta mundu profanoa bereizteko, eskua lepoan jarrita hitz egiten dute *tenidan* edo bilkuran ari direnean. Oso ideia kontrajarriak izanda ere, errespetu osoz egiten dutela dio. Adibide bat jarri du. "Duela 25 urte logia eratu zenetik, aurreneko bilkurak gazteleraz, euskaraz eta frantsesez egiten ditugu orain; baina, bereziki, senide batekin eztabaida handia izan nuen, berak uste zuelako *tenidak* gazteleraz egin behar zirela. Bozketa



Sinboloak jaun eta jabe dira masonerian. Alegoria horien barruan, "delta argitsua" izenez ezagutzen den sinboloa dago: begi bat duen hiruki bat.

egin zen, ordea, eta hiru hizkuntzak erabiltzearen aldeko jarrera nagusitu zen".

Eztabaida horietan, hasierako urtean ikastunek entzun besterik ez dute, lehen graduan daudelako. Izan ere, hiru gradu daude masonerian, eta graduaren arabera erritu desberdinak egiten dira. Bilkura gehienak lehen graduan egiten direla dio Arabako masoien egungo maisuak, eta bigarren edo hirugarren graduko bilkurak egiten dituztenean, gradu horietakoak ez direnak kanpora

ateratzen dira. Graduetan aurrera egiteko, ikastunek gai zehatz baten inguruko *xaffak* edo idazlanak egiten dituzte, eta gainerako kideek ikastun horren eboluzioa ebaluatzen dute. Modu horretan, ikastun horren bidea biribilduko dute. Prozesu horren sinboloak ere daude tenpluan: landu gabeko harri-koxkor bat eta perfekzioaren adierazle den harri kubikoa. Hurrenez hurren, jakintasuna, indarra eta edertasuna adierazten duten hiru zutabe daude tenpluaren erdian, gaua eta eguna edota gaiztakeria eta ontasunaren adierazle diren dama-taula baten inguruan daudelarik. Tenpluaren atarian beste bi zutabe daude: Salomonen tenpluko zutabeak. Azkenik, bilkuran zehar, ezpata bat eskutan duela, zeremonia babestuko duen zaindari bat jarriko da atean.

Keinu bereziak

Bilkurara dotore jantzita doazela azaldu du Laburuk. "Gizonezkoak beltzez eta alkandora zuriarekin, eta emakumeak jantzi beltz batekin". *Tenidak* iraun bitartean senideak euren lekuan mantenduko dira, norberak duen graduaren arabera. "Bilkuran zehar, mugitzen den bakarra zeremonia burua da". Hasi baino lehen, makilarekin hiru kolpe emango ditu zoruan, eta, musikaz lagunduta, "hiru argien" sarrerara iragarriko du: lehen begiralea, bigarren begiralea eta maisu benegarria, hain zuzen. Atabaka antzeko bat pasako dute bilkuraren amaieran, filantropia kontuetarako erabiliko dutena. "Adibidez, behin diru hori gaixotasun arraro bat zuen Gasteizko neska batentzat bideratu genuen. Dirua eman genion, familiari, gure kultura-elkartearen izenean, masoi ginela aipatu gabe, noski".

Bilkuretan zeintzuk parte hartuko duten jakiterik ez dute masoi ez direnek, baina haien artean elkar ezagutzeko keinu batzuk badituzte. Behin, Ameriketako Estatu Batuetako aireportu batean dirurik gabe gertatu zen Gasteizko senide bati horrelako keinu bat lagungarri izan zitzaioela dio Laburuk. Keinu zehatz batzuk eginda, beste masoi baten arreta eta laguntza lortzeko aukera izan zuen. Masoiek bakarrik erabiltzen dituzten keinu horietako bat egin du Laburuk. "Emadazu eskua", eskatu du. Eskua emanda, informazio kodifikatuaren miraria *gertatu* da. "Lasai, hau dagoeneko ez da sekretua. Tira, gaur egun, ia dena dago interneten". ■

Masoien historia: luzea eta korapilatsua

Europako Erdi Aroan katedralak eraikitzeke sortutako gremioetan abiatzen da masoneria. Garaiko gremioetan hiru gradu ziren: ikastunak, kideak eta maisuak, eta hiru gradu horiek mantendu dira egungo masonerian. Igeltseroek erabiltzen zituzten tresnak mantendu dira ere, beti ere, balio sinbolikoarekin.

Benetako harriak lantzen zituzten beharginen eta gizakien arima lantzen duten egungo masoien arteko trantsizioa XVII. mendean abiatu zen, eraikitzaileen elkarteetan pixkanaka beste lanbideetatik etorritako kideak sartu zirenean: masoneria operatibotik masoneria espekulatibora egindako jauzi hori bereziki Edinburgoko logian gertatu zen. Urte batzuk geroago, 1717an, erabateko aldaketa egon zen, urte horretan dagoeneko guztiz

espekulatiboa zen Londresko Logia Handia sortu zutenean.

Garaiko tirabira erlijioso eta politikoen aurrean, gizakien arteko senidetasuna helburu zuten lagunak bildu zituen mugimenduak. 1723an idatzi ziren masoneriaren oinarri ideologikoak ezarri zituzten 'Andersonen Konstituzioak' izeneko agiriak. Bertan zehazten zen katedrala eraiki beharrean, senidetasun unibertsala eraikitzearen beharra, "Unibertsoaren Arkitekto Handiaren omenez". Ideia berriek berehala jaso zuten Eliza Katolikoaren gaitzespena, baina horrek ez zuen ekidin mugimenduaren

KATEDRALAK ERAIKI
ZITUZTEN GREMIOETAN
ABIATU ZEN MASONERIA
ESPEKULATIBOA

zabalpena, eta laster masoneria Europa osora eta Ameriketara hedatu zen.

Senidetasuna helburu izateak ez zuen suposatu masoien arteko liskarrak sortu ez zirenik. Adibide argia dago gurean: 1813ko Gasteizko batailan aurrez aurre borrokatu ziren Jose Bonaparte eta Wellington jenerala, biak ala biak masoiak ziren.

Ezaguna da Frankismoak masoneria debekatu zuela Espainian, eta, hortaz, urte luzez, Hego Euskal Herrian masoiek ezkutuan aritu behar izan zuten. Trantsizioarekin batera berpiztu zen masoneria antolatua. Gasteizko logia 1993an eratu zuten, hasiera batean gizonezkoak osatuta. Baina handik urtebetera emakume batek masoi izateko eskaera egin zuen, eta bera izan zen Hego Euskal Herriko lehen emakume masoia.



"Kanpotik ikara, baina barrutik beldurriagoa da kartzela"

ALFREDO REMIREZ MARAÑON PRESO OHIA

Urtebete egin du kartzelan Alfredo Remirezek, dispertsioa salatzeko ekintza batean parte hartzeagatik eta twitterren garatutako jardunagatik, "terrorismoa goratzea" egotzita. Espetxealdia amaituta, joan den larunbatean ongietorri beroa egin zioten ehunka herritarrek Amurrión.

Testua: **Aitor Aspuru Saez** Argazkiak: **Aiaraldea Gaur**

Alfredo Remirez amurriarra joan den larunbatean aterata zen Zaballako kartzelatik, urtebeteko espetxe zigorra amaitu ostean. Esperientzia hori eta adierazpen askatasuna izan ditu solasgai Aiaraldea Gaur agerkarian.

Ongietorria izan duzu kartzelatik ateratze bezain laster, zer nolako sentsazioa utzi dizu horrek?

Oso sentsazio polita, espetxetik ateratzea eta nire herri osoa zain ikustea poztasun handia izan da. Horrek erakutsi dit ez nuela gizarteratzeko beharrik. Gizartean oso ondo nengoen...

Hainbat aldiz sakabanaketa salatu ostean, zuri eta zure familiari egokitu zaizue politika hori pairatzea. Sakabanaketa nire aurka erabiltzea estatuaren mendekua izan da; hainbat aldiz salatu eta gero, probatu dut. Berez, urtebetean hiru kartzelatan egon naiz. Lehenik eta behin Basaurin, gero Darocan 400 kilometrorra eta, azkenik, Zaballan. Barruan ulertu dut askotan ikusi dudana bisitan joan naizenean, hau da, presoaren ardura bidaiaren inguruan. Nik beti pentsatzen nuen gure kontua zela, kanpoan egonik. Orain sentitu dut zer den telefono deia itxaron behar izatea jakiteko zure senideak ondo iritsi direla.

Halaber, sakabanaketak eragiten dituen istripuak salatu ditut askotan eta nire familiari gertatu zitzaion. Darocara iritsi berri, istripua izan zuten, eta hori presoarentzat sekulako kolpea da.

Maiz nabarmendu duzu preso gaixoen egoera, eta kide gaixo batekin egon zinen Basaurin.

Kide bat gaixorik izatean sentitzen duzu babestu eta zaindu behar duzula. Nik ahal izan dudanean egin dut. Konturatu naiz betidanik izan dela gure aldarrikapena preso gaixoak etxean egon behar direla, eta espetxean jazotzen dena ikusita, inoiz baino beharrezkoagoa dela ikusten dut.

Pedro Sanchez Espainiako presidente izendatu eta gero iragarri zuten zenbait preso hurbilduko zituztela Euskal Herrira, baina zu izan zara kasu bakarra. Nola bizi izan duzu hori barrutik?

Nik beti pentsatu dut ziegan, nahiz eta zigortua egon eta sufritu, salbuespena nintzela. Bigarren graduaren egon naiz eta euskal preso politikoen %90a lehen graduaren dago. Horrek esan nahi du 22 edo 23 ordu daudela ziegan egunero, isolatuta bizi direla... Nik "zortea" izan nuen, eta, komunikazioak kontrolatuak izan arren, helegitea jarri eta gero kendu zidaten neurria, eta aukera izan nuen eskutitzak bidaltzeko lagunei –aro digitalean–.

Gainerako euskal presoek ez dute eskubide hori. Esaterako, Ekaitz Samaniegok Murtziako espetxetik idatzi zidan eta bi hilabeteren ostean heldu zitzaidan eskutitza. Horrez gain, nik pare bat baimen izan ditut espetxealdiaren amaieran kalera ateratzeko, besteek ez. Hortaz, nire egoera oso salbuespenekoa izan da beste presoekin alderatuta.

Aipatu duzu gizarteratzeko beharrik ez zenuela.

Sumatu duzu espetxeak balio duela presoak gizarteratzeko?

Espetxea munstroa da eta kanpotik beldurra ematen du, baina barrutik are beldurgarriagoa da. Kartzelak ez du balio gizarteratzeko. Jende pilo bat sartzen dute leku berean, akusazio oso ezberdinekin. Gero, gizarteratzeko, behar duzu ikasketak izan, edo lanbideren bat ikasi, zer edo zer. Hori ez da gertatzen. Niretzat guztiak ziren preso sozialak, gizarteak eragindakoak. Ez dut dirudun bat bera ere ikusi presondegian, guztiak ziren txiroak. Urtebete eman dut espetxean eta jendea ikusi dut ateratzen eta berriro sartzen. Dirurik gabeko jendea ateratzen zenean, berdin zeuden. Barruan ez zuten ezer ikasten, beraz, egoera errepikatzen zen eta berriro lapurtzen zuten aurrera egiteko.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboan sartzea erabaki zenuen. Ondorioak izan ditu horrek?

Kolektibo horren parte sentitzen nintzen, baina ez dut betarik izan kideen berotasuna sentitzeko. Basaurin kide pare batekin egon nintzen, baina Darocan ez zegoen euskal preso politikorik. Oso arraroa da Espainiako Estatuko espetxe batean euskal presorik ez egotea, baina hara bidali ninduten. Gorroto kutsua sumatzen nuen, baina hobeto tratatu naute Darocan, zoritxarrez, Basaurin edo Zaballan baino. Bietan egoera txarra da burokratikoki zein hainbat esparrutan.

Basaurin Amurrioko beste preso politiko batekin egin zenuen topo otsailean, Julen Ibarrola espetxeratu zutenean. Nolakoak izan zen bizipen hori?

Berarentzat ez, baina niretzat oso egun polita izan zen. Banekien sartu behar zela, eta ongietorria egiteko prest nengoen. Nire kasuan bezala, Julen lehenengo aldiz sartu zen kartzelara eta hasierako egunak oso gogorrak dira. Apur bat erakutsi nion zer zen hor egotea. Berarekin ziegan egon nintzen, Dragoi Bola ikusten genuen (barreak) eta ondo pasatzen genuen elkarrekin. Pena izan zen handik hamar egunera Darocara bidali nindutela. Sakabanatu ninduten eta bera han geratu zen. Gutxienez, pozik nago gertu dagoelako.





Espetxean urtebete eman duzu. Zer kendu dizu espetxealdiak edo zer eman dizu?

Kartzelan galdu dudan gauza bakarra ilea izan da. Lehen argi nuen espetxeen aurka eta presoan alde borrokatu behar zela, eta orain gehiago. Nire kideen egoera askoz txarragoa da, oso urrun daude, eta hurbildu behar ditugu, kaleratu arte. Itxaroten ari gara ea Pedro Sanchezek aipatutakoa betetzen ote duen. Izan ere, presoak Murtziatik Palentziara mugitzeak ez du ezertarako balio. Hemen egon behar dira. Horrek borroka grina sortu dit, eta hemendik aurrera lanean jarraituko dut.

Zure espetxeratzea adierazpen askatasunaren mugarrria izan da, baina egoera ez dirudi hobera egin duenik azken urtebetean.

Ez, urtebetean aldatu den gauza bakarra ordutegia izan da (barreak), orain neguko ordutegian gaude. Adierazpen askatasuna arazo larria da eurentzat. Pentsamendu bakarraren aldekoek ez dute nahi bestelako pentsamendurik izatea, eta horretarako gai dira edozer gauza egiteko. Valtonyc, Pablo Hasel, Boro, La Insurgencia... eta beste lagun asko dira adierazpen askatasuna erabiltzematik eta bermatzeagatik arriskuan daudenak momentu honetan. Euren askatasunaren gainetik adierazi gara. Eta honetan guztian larriena da jendeak uste duela berari ez zaiola inoiz gertatuko. Gaur, agian, ez dute ezer esateko, baina bihar izango dute, eta askatasunik ez da egongo. Adierazpen askatasunaren alde borrokatu beharra dago. ■■■

5 URTE
EUSKARARI
PUZKA

URRIAK 25
AZAROAK 14

ERRIGORA

SUSTATU EUSKARA NAFARROA HEGOALDEAN

ESKATU SASKIA(K) 50€REN TRUKE ETA JASOTAKO DIRUA-REN %25 BERTAKO EUSKALGINTZARA BIDERATUKO DA.

Arabako kazetaritza euskalduna babesteko...

jar ezazu zure alea,
jaso ezazu zure alea



Laster edo gero



ITZIAR REKALDE

IPUIN KONTALARIA

Azken ordurako uzten duzu egin behar duzuna? Nahitaezko zerbait atzera botatzen duzu eta bitartean hutsalakerietan zabiltza? Eginkizun konplexuak eta zehaztu gabekoak direnean ez dakizu nondik heldu? Nagikeria ote da? Begiz aurre daukazuna ez duzu gustuko edo nekeza deritzozu? Funtsezkora jotzeko arazoak daukazu? Harira etorri gabe, izarrei begira ematen duzu denbora?

Baiezkoa izatekotan, prokrastinatzen ari zara. Betebeharrak ezin hobeki egiten saiatzen bazara, larri perfektionista bazara, baliteke geroko uztea aurrean daukazuna. Adibidez, aldizkariaren arduradunek denboraz abisatu arren, sekulakoa egin nahi dudanez, azken momentu arte egoten naiz idatzi gabe. Nire kasuan, ez da perfektionista naizelako nire ustezko ahalmenak neurritz kanpo baloratzen ditudalako baizik.

Denok prokrastinatzen omen dugu noizbait. Batzuk gehienetan. Ohitura kontua omen da. Ohitura guztiak errepikapenez eta berehalako sariez sortzen omen dira. Betidanik, obeditzen dudanean edo etxeko lanak, administrazioekiko tramiteak denboran betetzen ditudanean edo ondokoek espero dutena egiten dudanean, berehalako saria jasotzen dut, onartua sentitzen naiz, eroso, maitatua baita. Horregatik hauetan jartzen dut kementa.

Gainditzen nauen ohitura kaltegarri hau baztertu nahian, internetera jo dut. Bizitza hobetuko didaten esteka ugari agertu zaizkit pantaila aurrean. Hasierako biak ikusi ditut eta gero prokrastinatu dut. Dena dela, bazterrean uzten ditugun gauzen zerrenda egitea gomendatzen dute. Hala egin dut: amarekin solasaldi gehiago izan, lagunei toke bat eman sarriago, ibilaldiak egiten hasi, egunero gutxienez kanta bat abestu eta dantza egin, sukaldatzeko denbora hartu, aspalditik zain ditudan liburuak irakurri, bilobarekin jolastu, txalaparta jotzen hasi, geure baitan ditugun mugak hautsi, erosotasunaren gunetik irten, oinarritzakora jo. Gakoa geuretzako zer den garrantzizkoa asmatzean datza.

Atzeratu, geroko utzi... Erortzeko beldurra dut. Hau da gehienetan prokrastinatzeraren naraman egiazko zergatia. Hor utzi dut bukatu gabe zerrenda. Hastea omen da zailena. Gaitz erdi. ■■■

**DENOK
PROKRASTINATZEN
OMENDU DUGU
NOIZBAIT. BATZUK
GEHIENETAN**

Pausa



AINTZANE URRUTIA

INFORMATIKARIA

Pausa, horrela izendatzen zuen Mia-k, Siri Hustvedt-en *El verano sin hombres* laneko protagonistak, bere bikotearekin harremana etetea ekarri zuen pertsona. Harremanak, edozein motatakoak direla ere, amaitu egiten dira. Ez dago amaiera polita duen maitasun harremanik, izan bikote, lagun, familia... izan ere, erlazioak amaiera badu, ez da polita izango, eta bestela, ez da amaierarik iritsiko.

Aldaketek beldurra sentiarazten digute, ezagutzen duguna atzean utzi eta ezezagunean galtzeak ikaratu egiten gaitu. Baina batzuetan, gelditu eta hausnarketa egiteko gai garenean, jarraitu duzun ibilbideari erreparatu, eta egindako hori zurea duzun edo zutaz espero zutena ote den galdetzen diozu zeure buruari. Eta galdera horiek buruan dituzula... hilabeteak pasatzen dituzu, balantzaren alde batean bizitza berri bati ekiteko nahia duzula eta bestean berriz, sentitzen duzun izua. Pausan zaude, pausan nago.

Horrela egotearen arrazoietakoa bat, seme-alabak izaten dira, beraiek baitira azken finean gehien maite ditugunak eta... min emateak beldurra sortarazten du. Baina gazteagoak izateak ez du esan nahi ez dutela guk adina baliabide, haratago, esango nuke nagusiagoak garenak baino adimen emozional haundiagoa dutela. Eta horrela erakutsi didate etxean. Bizirik egotea zer den erakutsi didate. Bizitza bizi egin behar dela. Ez garela konformistak izan behar. Alderantziz uste dugun arren, umeak dira gure maisuak.

Honaino iritsi eta pausan zaudelakoan bazaude, galtzen duzunari begiratu beharrean, irabaz dezakezunari erreparatzeko esango nizuke. Seme-alabei, konformista izatea ez dela bidea erakutsiz. Beraien ilusio eta ametsengatik borrokatzeko bezain ausartak izan daitezen, gaizki iruditzen zaionaren aurka borrokatzeko gai izan daitezen... M. L. King-ek esandako modura "herrien tragediarik haundiena ez da gobernu autoritarioaren garrasia, jendearen ixiltasuna baizik". Erakutsi diezaiegun, beraz, gure ondorengoei ausartak izaten. Beharrezkoa denean, pausa egin, geratu eta ikasitakoa desikasteko prest azaltzen. Mundua aldatzen. Norberaren mundua aldatzetik hasten baita aldaketa. ■■■

**EZ DAGO AMAIERA
POLITA DUEN
MAITASUN
HARREMANIK, IZAN
BIKOTE, LAGUN...**

SAREAN

@ANAMENABAR

#Justizia

Espainiako Justiziaren independentzia eztabaida guztien erdigunean izan da aste honetan. Batetik, Estrasburgoko auzitegiak ebatzi du Bateragune auzikoek ez zutela epaiketa inpartzialik izan; zehazki, Auzitegi Nazionaleko epaimahaiburua ez zela inpartzala izan. Auzitegi Gorenak, beste alde batetik, Gorenak berak duela bi aste erabakitakoaren kontra, hipoteken zerga bezeroek ordaindu behar dutela erabaki du. ■



XABI LASA
@xabilasagorraz

Egun batean, eta bestean, eta bestean... Europako epaitegiak mintzo diren bakoitzean Espainiakoei arrazoia kendu eta lotsarazten dituzte. Noiz hartuko du seriotan Espainiak justizia?



HEDOÍ ETXARTE
@hedoi_etxarte

Gaur ez da justiziarik egin. Espainiako Erreinuan, 78ko erregimenean, ez delako justiziarik kabitzen. Justiziaren kate osoa dagoelako ustela: epaileak, poliziak, Estatu sakona, kartzelak, legeak...



EIDER ARANBERRI
@EiderAranberri

Ze esperantza izan behar du batek halako justizian ta halako politikan? Madrilén azkenaldian auzolotsa ta dezepzio gehiegi ari naiz sentitzen #haumundua #hipotekak



AITOR ARETXAGA
@bekereke

Beste behin ere Espainiako justiziak lotsa bikoitza. Bateragune goizean Europatik inpartzialtasun salaketa, eta iluntzean, banketxeak nagusi; hauek ere Parker Lewisen antzera "ez dute sekula galtzen".



XABIER MARTIN
@Xabier_Martin

Espainiako Auzitegi Gorenak eskandalua areago eraman du, baina gizon jakintsuei bost; bankak milioi euro gehiegi zituen jokoan, nonbait.



SANTI LEONE
@ororostorm

Aurreztuko duten dirua Espainiako bandera erraldoiak erosteko erabiliko dute bankuek.



IRUDITAN

Txakurretatik ihesi

Ohikoak dira txakurrek mendian dauden ardiei egindako erasoak; ondoko irudia, esate baterako, urriko azkeneko astean ateratakoa da, Gorbeian. Egun hartan, txakur bat azaldu, artaldea beldurtu, ihesik atera eta elur azpian harrapatuta geratu ziren ardiak; hamarnaka ardi hil zituen. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako artzainek agerraldia eskaini dute aste honetan eraso horien aurrean administrazioak duen "inplikazio falta" eta basozainen "utzikeria" salatzeke; herritarrei, berriz, txakurrek eragin ditzaketen sarraskiez jabetzeko ere eskatu diete. ■

Argazkia: Zigor Gonzalez de Audikana Iturriaga.



**Bidali zure argazkiak
testu labur batekin:
erredakzioa@alea.eus**



Zumarraundiko bidean istripu bat izan daitekeen beldur dira Zalduondon. GUSTAVO FERNANDEZ

Urbiako bidea moztuko dute

Aratz-Aizkorri parke naturalera Arabatik sartzeko ohiko bidea zeharo hondatuta dagoela salatu du Zalduondoko Udalak; konponketa eta mantenua adostu ezean, sarbidea itxiko dutela iragarri dute.

E. UGARTE IZ. DE ARKAUTE ZALDUONDO

Erabaki polemikoa izan daiteke Urbiako larreetara igotzeko milaka lagunek erabiltzen duten Zumarraundiko errepidea ixtea, baina mahai gainean jarri du aukera hori Zalduondoko Udalak. Gogaituta daude bizilagunak bidea "erabat txikituta eta egoera tamalgarrian" dagoelako, eta arazoaren aurrean administrazioak

ardurak saihesten ari direla uste dute Zalduondoko eta Asparreneko udal agintariek.

Gustavo Fernandez Villate Zalduondoko alkateak azaldu duenez, beldur dira egunen batean istripuren bat egon daitekeelako Urbiako igoeran. "Inork ez badu ezer egiten, gure asmoa da bidea ixtea, eta soilik pasatu ahal izatea baimena dutenak, artzainak, herri-

tarrak egurra ateratzeko... baina mendira joateko, parke naturalera sartzeko debekatuko genuke". Dagoeneko Arabako Diputazioak ohartarazi die landa-bidea den heinean ezin dutela itxi, baina udalbatzak eskatuko du landa-bidea izatetik mendi-bidea izatera pasatzea, eta hala balitz aukera izango lukete ixteko.

Trafiko ugari

Urbiako larreetara kotxez igotzeko artzainek eta abeltzainek duten modu bakarra Zumarraundiko landa bidea erabiltzea da, eta, gainera, 1994. urtetik, Aizkorri-Aratz parkearen Arabako zatira sarbiderik erabiliena da -Arabako Foru Aldundiaren datuen arabera, 2017. urtean 36.000 lagunek erabili zuten-. Sei bat kilometroko bidearen zati nagusia Zalduondoko udalerriarena da, eta beste zati txikiago bat Asparrenekoare-



Iragan San Inazio egunean jarri zuten pankarta. GUSTAVO FERNANDEZ



Urbiako bidea zuloz beteta dago. GUSTAVO FERNANDEZ

na. Hala ere, udalen arabera, haiekin batera beste administrazio batzuek ere errepidearen konponketan eta mantenuan parte hartu beharko lukete, ohiko landa-bide batek dituenak baino funtzio gehiago betetzen dituelako, batik bat parke naturalarekin lotuta. "Konponketa integrala behar da, eta atzean utzi adabakiak. Goazen argitzera bakoitzak zer kostu onartu ahal duen".

Gipuzkoako Diputazioak dagoeneko erantzun die bidea Ara-

ban dagoela, eta erantzukizuna saihestu du. "Gipuzkoako eta Arabako artzainek erabiltzen dute bidea –gogoratu du Zaldueondoko alkateak–, eta bere jarduera ekonomikoa sostengatzeko ezinbestekoa dute Urbiako bidea konpontzea". Bere aldetik, Arabako Diputazioak, 475.000 euroko aurrekontua egin du bidea berrietzeko, eta udalei eta Entziako Partzuergoari proposatu die gas-tua kopuru berdinean banatzea eta ordaintzea. Fernandez Villatek

"INORK EZ BADU EZER EGITEN, GURE ASMOA BIDEA IXTEA DA"

"KONPONKETA INTEGRALA BEHAR DA; EZ ADABAKIAK"

GUSTAVO F.VILLATE (ZALDUONDOKO ALKATEA)

uste du ardurak saihesten saiatzen ari dela Diputazioa. "Zaldueondoko Udalak egiten duen diru-bilketa eta Diputazioarena ezin dira maila berean jarri. Ez zaigu logikoa iruditzen 186 biztanle dituen herri batek gastu hori onartzea. Ulertzen dugu guk ere bidea erabiltzen dugula baina banaketa hori ez da justua".

Diputazioekin bezala, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen zuzendari Aitor Telleriaren biltzen saiatu da Zaldueondoko Udalak, jakiteko erkidegoko administrazioa prest egongo den ekarpena egiteko. "Lotsagarria izan da Telleriaren jarrera; ez digu kasurik egin".

Enegarren urratsa hilaren 15ean egingo dute. Batzar Nagusietan agerraldia egingo dute Zaldueondoko eta Asparreneko alkateek, gaia "astintzeko" asmoz. "Planteatuko dugu errealitatea zein den, eta zer neurri hartu behar diren. Ez dakit konturatzen diren zer ari den gertatzen".



Agerian geratu dira ordainketak

Sidepur enpresako Josu Arrutik eta Construcciones Rierako Francesc Fernandezek onartu dute Alfredo De Miguelek komisiok jaso zituela.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Akusatuen lehen aitortzak entzun dira aste honetan *De Miguel auziaren* ahozko epaiketan. Sidepur enpresako administratzaile Josu Arruti izan zen EAJko Arabako diputatu ohi Alfredo De Miguelek komisiok jaso zituela onartu zuen lehena. Asteleheneko saioan epailearen aurrean onartu zuen Construcciones Riera enpresako arduradunak 161.000 euroko komisiok ordaindu zizkiela berari eta De Migueli Zanbranan industrialdea eraikitzeko kudeaketa lanak egitearen truke.

Azaldu zuen 2005. urtean honako proposamena luzatu ziola

politikari jeltzaleak: "Zer iruditzen zaizu zuretzat eta niretzat komisiok bat eskatzen baduzu?". Askoren jokoan zegoena: Zanbranan 120 hektareako lursail bat birkalifikatzeko eta industrialdea sortzeko proiekturako 65 milioi euroko inbertsioa egin behar zuen eraikuntza enpresak.

Saio berean, Josu Arrutik onartu zuen komisioren aitortza egin zuela fiskalarekin akordioa lortu duelako kartzela zigorra murrizteko; fiskalak 19 urte eta 10 hilabete eskatzen zuen hasiera batean berarentzako.

Egun bat lehenago Arrutik aitortutakoa berretsi zuen Cons-

trucciones Rierako arduradun Francesc Fernandez Jovialesek; berarentzat eta eraikuntza enpresa bereko bazkide Placid Casasentzat, zazpi urte eta sei hilabetezko espetxe zigorra eskatzen du fiskalak.

"Oztopoak gainditzeko"

Haren esanetan, Sidepurreko enpresariak komisiok eskatzean De Miguel proiektua aurrera ateratzeko balioko zuela jakinarazi zion: "Esan zidan proiektua dinamizatuko zuela, hain garrantzitsua eta epe luzekoa den proiektu batean egon daitezkeen oztopoak gainditzeko eta administrazioarekin harreman ona edukitzeko komenigarria zela ezagutzen zuen norbait izatea".

Fernandezek aitortu zuen zailantzan izan zirela. "Horren inbertsio handia egiten duzunean, 160.000 euro asko da, baina gutxi da dena hondoratu badezake. Niretzat orban bat da komisiok ordaindu izana». Haren hitzetan, Kataia Consulting enpresaren bidez ordaindu zen adostutako kopurua.



Urtarriletik dabilta Arabako Probintzia Auzitegian ahozko epaiketa egiten. EITB

Gasteizera datoz naturazaleak

Natur Zientzien hirugarren topaketa egingo dute hilaren 17an eta 18an Europa Jauregian; besteak beste, herritarren zientzia, leizeak eta ibaiak jorratuko dituzte, eta ehizari buruzko ezbaiari ere helduko diote.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Aurrenekoz Gasteizen egingo dute euskal naturazaleak biltzen dituen topaketarik garrantzitsuen. UEU Udako Euskal Unibertsitateko Natur Zientziak sailak eta Euskal Natura taldeak antolatuta, gaiaren inguruan lan egiten duten edo naturarekiko zaletasuna duten euskaldunak bilduko ditu topaketak. Aurreko edizioak 2013an eta 2015ean egin dituzte, Donostian.

Sinbiosian da aurtengo hitzordurako aukeratu duten leloa, ekologian ohikoa den ikerketa gai bat metafora gisa hartuta. Antolatzaileen esanetan, erakundeetan lan egiten dutenak, unibertsitateko ikertzaileak eta natur taldeetako kideak sinbiosian aritzea sustatu nahi dute, aditu eta zale-tu horiek guztiek elkarrekin gauza asko partekatzeke eta ikasteko modua dutelakoan.

Askotariko gaiak jorratuko dituzten arren, lau gaiak hartuko dute protagonismo berezia hitzaldietan: zientzialari ez diren lagunen ekarpena jasotzen duen herritarren zientzia, ingurumen hezkuntza, ibaiak eta kobazuloak. Besteak beste, parte-hartzaileek lehen eskutik ezagutuko dute herritarren zientziaren arloan Gasteizen egin den lana, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko teknikari Asier Sarasuaren eskutik.

Lehen sektorearen garrantzia kontuan hartuta, egungo egoera aztertuko dute eztabaida saio batean, eta naturazale askoren artean hautsak harrotzen dituen gai bati ere helduko diote: ehizari buruzko mahai-inguru bat egingo dute. Programa osoa www.nztopaketa.eus webgunean dago ikusgai. Gasteizen aterpe hartuta, hiriak ingurumenaren alde egin-

EHIZAREN INGURUKO EZTABAIDARI ERE HELDUKO DIOTE: MAHAI-INGURU BATEN BIDEZ EGINGO DUTE

dako ekintzei "ikusgarritasuna" eman nahi izan diotela azaldu du Aitor Salaberria Euskal Natura elkarteko eta UEUko kideak. Bestalde, Araban dauden beste profil batzuetako lagunengana iritsi nahi dutela nabarmendu du, hala nola ingurumen zientzietako ikasleak, Arkautiko edo Murgiako basozain eskolako irakasle zein ikasleak edota Jaurilaritzako ingurumen saileko teknikariak. Modu berean, "Gasteizko euskalgintzak egindako lana" aitortu nahi izan diotela dio Salaberriak.

Irteera Salburura

Igande arratsaldean, behin topaketaren saio formalama amaituta, irteera egingo dute Salburuko hezegunera. Bertako paisaiatz gozatzeaz gain, ingurune horretako kudeaketarekin zerikusia duten hainbat gai landuko dituzte. Bestalde, bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) egoera ezagutuko dute; Life Lutreola proiektuan lan egiten duen Iñaki Galdos kimikariak emango ditu gaiari buruzko azalpenak. Espeziea kinka larrian dago European, batez ere bisoi amerikarraren (*Neovison vison*) presioa dela eta.



Lizarralde soinu txalaparta SL

Audio Profesionala, Megafonia

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
 945 22 69 77
 GASTEIZ

ESANAK



HAIZEA CASTRESANA
LAUDIOKO ARBITROA

"Gizonezkoen kategorian, mailarik gorenera heldu nahi nuke arbitro gisa"



PILAR GARCIA DE SALAZAR
DIPUTATU NAGUSIORDEA

"De Miguel auziak ez du inongo loturarik Miñaoko parkeko zabalkuntzarekin"



BELEN FUENTES
ENRPESARIA

"Lan arloan emakumeek orain dela 25 urte bezala gaude; egoera ez da aldatu"

ZENBAKITAN

Igerilariak

Gibraltarko itsasartea igeri egiten zeharkatu zuten pasa den asteburuan Mikel Etxabe, Ramon Eguren y Roberto Gil igerilari arabarrek; zehazki, lau ordu eta 23 minutu erabili zituzten Tarifa eta Marokoko kostaldea banatzen duten 16 kilometroak egin ahal izateko. Ez zen samaurra izan, azken lau kilometroetan haizeari eta olatu handiei egin behar zietelako aurre. Vicente Ferrer fundazioaren Brazadas Solidarias elkartasunezko proiektuaren barruan egin zuten aipatu erronka; helburu nagusia Indiako Anantapurren ur araztatzaile bat eraikitzen laguntzea dute.

3

9

Lanak

Aintzane Atela gipuzkoarrak irabazi du Gasteizko Udalak gazte-literaturaren arloan euskarara egindako itzulpenik onena saritzeko ematen duen aurtengo Vitoria-Gasteiz Saria. Hain zuzen ere, Jose Luis Lopez Muñozen *Konkorduna* izeneko liburuaren itzulpenagatik jaso du 9000 euroko saria. Haur-literaturaren arlokoa, berriz, eman gabe geratu da aurtén. Denera, bederatzita lan aurkeztu zituzten, epe barruan.

100

Urteak

Gasteizko Principal Antzokiak ehun urte bete dituela ospatzeko, ekitaldi bereziak izango dira urte amaieran. Abenduaren 14an ekitaldi nagusia egingo dute, Mikel Gomez de Segura zuzendari gasteiztarraren eskutik, eta ehun artista elkartuko ditu. Horrekin batera, besteak beste, *Gizon zoriontsuaren alkandora* eta *Cinco horas con Mario* antzerki obrak eta Moskuko Ballet Klasikoaren ikuskizuna ere izango dira Principaleko taula gainean.

Nitratoengatik arrisku eremu izendatu dute Larrazubiko zati bat

Jaurilaritzak arrisku eremu izendatu ditu Miranda de Ebroko lurpeko ur-masaren iparraldeko eta erdialdeko sektoreak, nitrato-maila jakin batzuk gainditzen dituzten urak biltzen dituztelako. Ebro ibaiaren eta Larrazubiko zubiaren goialdearen arteko nekazaritza lurak dira horiek. Eremua babes-teko neurriak hartu beharko direla iragarri du.



Larrazubiko zubian dago kutsadura. ALEA

Astelehenean irekiko dira neguan ostatu emateko bitartekoak

Gasteizen kalean lo egiten duten lagunei neguan ostatu emateko aterpeak astelehenean, hilaren 12an, zabalduko ditu ateak; 22:00etatik 08:00ak arte eskainiko du babeslekua, eta, hasiera batean, 20 lagunentzako lekua eskainiko du. Kopuru hori, baina, handitzerik izango da beharrik izanez gero. Printzipioz, datozen bost hilabeteotan egongo da aktibo.

Gasteizko TAO-a telefonoz ordaintzeko sistema ezarriko dute

TAO-a telefono mugikorraren bidez ordaintzeko sistema ezartzeko kontratua esleitu du asteon Gasteizko Udalak. Erabiltzaileek doan deskargatu ahal izango den aplikazioa instalatu beharko dute beraiei telefonoan. Honako funtzioak izango ditu, besteak beste, sistema berriak: aparkatzeko denbora erostea, denbora luzatzea edo isuna baliogabetzea.

Olarizuko gurutzea eraistea baztertu dute Batzar Nagusiek

EAJ-PNV, PP eta PSE alderdietako batzarkideen eta Talde Mistoko ordezkari independentearen aldeko botoekin atzera bota dute Arabako Batzar Nagusietan Mendiolako Kontzejua babestea eskatzen duen mozioa. Olarizuko gurutzea "eraisteko edo mugiarazteko" erabakia hartu zuen apirilean kontzejua, "izaera frankista" duelakoan.

ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2018/19

Lehenengo mailatik hasita, unibertsitateko bizipena eta enpresan egonaldia tartekatuta ahal izan ditut

Xabat Segurola Errondosoro
Zarautz. myGADE. 3. maila.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE AZAROAK 24
LARUNBATA 10:30

GOIERRI AZAROAK 29
OSTEGUNA 17:30

ORONA IDEO ABENDUAK 15
LARUNBATA 10:30

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIALTZA ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00

ARETXABALETAK ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00

ATE IREKIAK HIRIETAN:

DONOSTIA ABENDUAK 18 18:00
Kursaal Jauregia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
— Basque Culinary Center

DONOSTIA ABENDUAK 15
LARUNBATA 10:30

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI AZAROAK 17
LARUNBATA 11:00

BIDASOA AZAROAK 15
OSTEGUNA 18:00

BILBAO AZAROAK 24
LARUNBATA 11:00

Etorriko zarela jakinarazi!
902 110 436 — www.mondragon.edu/prest

Uretan blai datorren zientzia

EHUK antolatutako Zientzia Astea egingo dute BIBAT museoan. Gazte zein helduei zientzia hurbiltzea helburu duen ekimenak ura izango du aurtengo protagonista, baina hori ez da gai bakarria izango.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

XVIII. edizioa iritsi da honez-kero Euskal Herriko Unibertsitateak urtero antolatzen duen Zientzia Astea. Ohi bezala, gurean BIBAT museoan hartuko du aterpe zientziaren gizarteratzea helburu duen ekimenak. Orotara, ostegunean hasita eta igandera arte, 30 jarduera baino gehiago bildu dituzte: tailerrak, txoko zientifikoak, ibilbide didaktikoak, erakusketak, lehiaketak, janari-datatzeak, irteerak eta bisita gidatuak, besteak beste. Programa osoa *zientzia-astea.org* webgunean ikusgai dago.

Ura hautatu dute aurtengo gai nagusi modura, eta urarekin

lotura duten hainbat erakundek lagunduko dute gaien sakontzen: horien artean, Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, URA agentzia, edota AMVISA daude, baina duela bi milurteko *erromatarrek* ere laguntza emango dute. Izan ere, larunbatean eta igandean berreraikuntza historikoan lan egiten duen Cohors I Gallica taldeak

ZIENTZIA CLUB IZANGO DA EKITALDIETAKO BAT, HAMAR MINUTUKO BAKARRIZKETA EDO IKUSKIZUNEZ OSATUTA

irudikatuko du nolakoa izan zen uraren eguneroko erabilera erromatar inperioaren garaiko etxe batean.

Denbora asko ez dutenek bereziki eskertuko dute hainbat gai batera eta modu arinean biltzen dituen Zientzia Club ekitaldia. Ostiral arratsaldean aurkeztuko dituzte hamar minutuko ikuskizun edo bakarriketa laburrak; EHUKo ikertzaileek ohiko seriotasun akademikoa alde batera utzi eta modu informalean pilula informatiboak emango dituzte. Adibidez, *KimikArte* bloga idazten duen Oskar Gonzalez Mendia kimikaria saiatuko da argitzen nor izan den artelan batean kaka egin duena, eta Marta Kopinska eta Agurtzane Azkaray hizkuntzalariek hizkuntza bat ikastearen gorabeheren berri emango dituzte.

Bestalde, ingurumenari lotutako jardun egokiak azaltzen dituen erakusketak zabalduko dute Bibaten. Baina Zientzia Asteak museoko atak zeharkatuko ditu, baita ere, kanpoan hainbat bisitaldi gidatu antolatu dituztelako: adibidez, hirian zehar barreirata dauden harri igneoak, sedimentarioak eta metamorfikoak bereizten ikasteko bisitaldia egingo dute, Krispiñako araztegiaren funtzionamendua azalduko dute, eta Mamia okindegi lantegian ogia nola egiten den irakatsiko dute. ■



Gazte zein helduei bideratuta dago astea: baldintza bakarra kuriositatea izatea da. EHU

Igandean, etxeko ateak irekita

Etorkin, errefuxiatu eta bertoko askotariko familiak bazkaltzeko elkartuko dira, aurten ere, Bizilagunak egitasmoaren bidez; kultura ezberdinetatik datozen pertsonen arteko adiskidetasuna sustatzea da xedea.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Bosgarrenez egingo dute igandean, hilaren 11n, kulturen arteko bizikidetzatza sustatzea helburu duen Bizilagunak egitasmoa. Hain justu, jatorri ezberdineko familiez osatutako hamaika bazkari egingo dira Araba osoan; mahaiaren bueltan elkar ezagutzeko aukera izango dute.

CEAR Euskadiko kide eta Bizilagunakeko sustatzaile Ainhoa Garagalzak nabarmendu du "barruan ditugun harresiak" apurtzeko eta "kalean entzuten diren zurrumurruak" zalantzan jartzeko ekimen aproposa dela antolatzen dabiltzana. Horrekin lotuta, zera aipatu du: "Elkar ezagutuko gara, bakoitzaren istorioak eta ametsak ezagutuz; modu horretan egin ahalko diegu aurre estereotipoen".

Aurten ere askotariko herrialdeetatik iritsitako lagunek parte hartuko dute egitasmoan; Garagalzaren esanetan, 50 jatorri inguruko pertsonak bilduko dira; erabiliko diren hizkuntzak, ordea, askoz gehiago izango dira: "Askotan hizkuntz asko hitz egiten dituzte parte-hartzaileek; batez ere, Afrikatik datozenak", adierazi du. Euskarari ere tokia egingo diote etxe askotan; gehienetan, agurtzerakoan erabiliko dute, baina baita umeen arteko solasaldietan ere. Horren inguruan gaineratu du euskara sustatzea ere badutela buruan.



Pasa den urteko ekimenean egindako bazkari bat. CEAR-EUSKADI

Lotura urtean zehar

Iganderako iragarrita dauden bazkarien artean denetarik aurki dezakegu: asko aurretik elkartu izan dira, eta bueltako bazkaria egiteko aprobetxatuko dute. "Lotura dutenak badaude; elkar komunikatzen eta laguntzen dira urtean zehar".

GASTEIZ, AIARALDEA, LAUTADA, MENDIALDEA ETA ARABAKO ERRIOXAN EGINGO DIRA OTORDUAK

Herrialde osora zabaldu da berriro ere egitasmoa, eta besteak beste, Laudio, Amurrio, Agurain, Araia, Kanpezu, Maeztu eta Arabako Errioxan egingo dituzte. Batzuk bazkaltzeko bakarrik eratuko dira; beste batzuk, berriz, goizean txangoren bat edo egiteko aprobetxatuko dute.

Azkenik, Garagalzak iragarri du asteburuko hitzorduen ostean, bigarren bazkari bat prestatzen dabiltzala aurten ere abenduaren 1erako. Kasu horretan, ekimenean parte hartu duten guztiak elkartuko dira Gasteizko Hegoalde gizarte etxean. ■

Kontraesanak

KULTURA



DAVID MANGANA

KAZETARIA

Kontraesanetan hasten dira pentsamenduak. Azken aldi honetan batzuk agertu zaizkit, eta zintzo metatu ditut. Negua etortzeaz dago eta txiroez beteta daude Gasteizko kaleak... Non egiten dute lo? Diru-iturrien ondoan, kutxazainetan. Euskara gero eta gehiago entzuten da, nabarmena da Gasteizen. Kaleetan, hau bezalako hedabideetan, seme-alaben izenetan... Julian Retegi pilotaria euskaraz ari da; Julen izena duen Julianen semea, aldiz, erdaraz. Sabela bete eta giroa sortu dute betidanik pintxoek, solasaldiz solasaldi, tabernaz taberna... Donostian zigilu bat jarri nahi diete haien ustez kalitatezko pintxoak egiten dituzten tabernei. Plazer txikiaren hierarkia. Pintxoaren Institutua ere ireki nahi dutela entzun nuen... Hitzik ez.

Duela hiru aste Gasteizko liburuaren truke-azokara joan nintzen. Egutegian data berezia da niretzat. Liburuak eraman, liburuak ekarri. Alez betetako mahaiak begiekin dastatu biktimak (eleberri beltza), emozioak (drama) edo ideiak (entsegua) aurkitu arte. Asteburu polita da irakurtzea maite dugunontzat, baita beharrezkoa ere gure diruzorroari begira. Liburutegietan nahaste-borraste izugarria izango delakoan nago, baina nik udaberrian errepikatuko nuke.



KARKARA

Hor nire proposamena. Hain behartuta dagoen gure kulturgintzak hauek bezalako ekintzak behar ditu irakurketa bultzatzeko.

Harira joango naiz. Kontrazalaren sinopsira. Truke-azokako sarreran bertan publizitatea banatzen zuten.

Liburuak erosi eta saltzen dituen enpresa baten publizitatea hain zuzen. Legaltasunaren kontuan -nahiz eta irudia ez gustatu- ez naiz sartuko. Kontraesana nahiago

**PLAZER TXIKIAREN
HIERARKIA. PINTXOEN
INSTITUTUA ERE IREKI
NAHI DUTELA ENTZUN
NUEN... HITZIK EZ**

dut, zeren eta bi gauzarako balio du azokak. Liburu berriak mesanotxean izateko. Eta nahi ez dugunak gainetik kentzeko.

Askotan entzun dut. "Liburu pilo bat dauzkat ganbaran, ez dakit non sartu". Zertarako erabiltzen dugu azoka orduan? Gure liburuari bigarren bizitza emateko edo behingoz desagerrarazteko? Bepizteko edo kondenatzeko? Berrito ere liburuaren lehen orria da? Edo azkena? Alea beste aukera. Zenbat liburu, hainbat aburu esango nuke, oso originala ez izanda. Nire partez, azoka amaitu eta gero, uzta hasi da berriro. Zaramagako jaietan ere trukea egiten dute. Gero eta leku gehiagotan, eta ni ideiak, emozioak eta biktimak bilatzen ari naiz hurrengorako.

Epilogoa merezi du liburuarekin lotutako hau bezalako artikuluko batek: sekretu bat kontatuko dizuet. Duela ia hamar urte erdarazko ipuin-bilduma bat argitaratu nuen. Eta, halako truke batean, liburu horren ale bat zegoen. Zer sentitu nuen? Bada, poza, bizitza berri bat hasterako zorian omen zegoen eta. Eta baita tristura ere, inork nik idatzitakoa gainetik kentzeko beharra sentitu zuen eta. Horrelakoa da bizitza. Hamaika ikusteko...

Kontraesan Institutua ireki beharko lukete. Baina pintxoarena, hitzez hitz, jan beharko dugu. ■

KU. BERNAOLA FESTIVAL 2018



URRIA

27 AKUSMA (Jesús Guridi Musika Kontserbatorioa, 19:30)

AZAROA

1 ESPAI SONOR (Jesús Guridi MK, 19:30)

3 BERTRAND CHAVARRÍA-ALDRETE (Arte Ederren Museoa, 12:30)

8 SIRIUS & FRIENDS (Jesús Guridi MK, 20:30)

10 DRUMMING (Jesús Guridi MK, 19:30)

15 DZAST AHOTSAK (Jesús Guridi MK, 20:30)

16 ANNA MARGULES (Artium, Ekioldeko Goi Aretoa, 19:30)

17 MÓNICA VALENCIANO (Artium, EGA, 19:30)

18 DZAST AHOTSAK (Araia, San Pedro Eliza, 13:30)

18 MÓNICA VALENCIANO & CO (Artium, EGA, 19:30)

22 JEFF KAISER (Jesús Guridi MK, 20:30)

24 ENSEMBLE SINKRO (Jesús Guridi MK, 19:30)

29 ALEXANDRA GREFFIN-KLEIN (Jesús Guridi MK, 20:30)

ABENDUA

1 ALEXANDRA GREFFIN-KLEIN & ALEXIS DESCHARMES (Jesús Guridi MK, 19:30)

3 GURIDI GARAIDEA (Jesús Guridi MK, 19:30)

www.bernaolafestival.com



Neolitotik bizirik

GURE BAZTERRAK



Karkamu

Kuadrilla: Añana.

Udalerria: Gaubea.

Biztanleak: 27 (2017ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Ametzagaina parkeko ardiak kentzea erabaki zuen Donostiako Udalak 2015ean, Karkamun bizi dira orain.

TESTUA ETA ARGAZKI: ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Gaubean dagoen euskal toponimiaren arrastoen adibide bat da Karkamu, Euskaltzaindiak 2012. urtean herriaren izendapenaren inguruan argitaratu zuen irizpenak islatzen duen moduan: "Karkamu da zonalde honetan euskaraz hitz egiten zen garaian herriak erabiltzen zuen forma, zalantzarik gabe; amaieran 'o' letra duen *Cárcamo* forma moderno gaztelaniako arauak sortutakoa da, amaierako 'u' letra 'o' bilakatuz. Kasu bera da ondoko Arcamo mendatearena; Lautadan Arkamu bezala jasota dago 1799. urtera arte, bederen".

Herri txikia Erriberagoitia eta Gaubea lotzen dituen errepidearen alde banatan kokatuta dago, eta Neolito arotik izan da gizakia-
ren kokalekua. Horren lekuko da Las Calaveras izeneko hilobiko koba; 1960an deskubritu zuen Armando Llanosek eta

Jose Antonio Agorretak, besteak beste, osaturiko arkeologoen talde batek, eta bertan hiru emakumezkoen burezurrak aurkitu zituzten. Karkamu eta Luna herriak lotzen dituen mendiko bide batean dago koba, La Llanako putzuaren inguruan.

Denboran aurrera eginez, Erdi Aroko lekukotasunak ere baditu

Karkamuk, eta, hain zuzen ere, ospetsuena da errepidearen ezkerretara, herriaren erdian dagoen San Joan ermita. Jatorria XI. mendeko bigarren erdian du, eta arabar goiz erromanikoari dagokio. Ermitaren harrizko hormetan 1050 data aurkitu zen; gaur egun ermita barruan dago zintzilik apaingarri gisa. Arabako Foru Aldundiak 1980-1983an zaharberritu zuen eliza.

Teilatu hegaleko harburuetan giza eta animalia irudiak, antropomorfoak, bolak eta bestelakoak ikusten dira.

Ermita barruan estilo gotikoko Andra Mariren taila margotu bat dago, baita San Joanen taila bat ere, herri estiloan egina, eta gurutze gotiko bat.

Despopulazioak larriki jo zuen Karkamu, Gaubea haraneko gainerako beste herriak bezala. XX. mendean eskola bat zegoen herrian baina 1943. urtean, esate baterako, soilik bederatzi neska-mutil joaten ziren herriko eskolara.



EMAN ZUEN ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI. erredakzioa@alea.eus

Irakurleen txokoa

ZOZKETAK

Irabazleak:

Parralen bazkaria: Marga Mosquera Astrain (Gasteiz).



Antzerkirako sarrera bikoitza Principalen, 'Todo el tiempo del mundo' antzezlanaren ikusteko.

Eman izena azaroaren 14a baino lehen eta azaroaren 16ko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.

PARTE HARTU: www.alea.eus/zozketak



Harpidedunentzako oparia

Artepanek argitaratutako 'Ñam' errezeta liburua, ALEAko harpidedun guztiek doan jaso dezakete gure bulegoan: Eskola kalea 10, 7. bulegoa. Ordutegia: 9:00 - 18:00



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:

945 71 60 09

On-line:

alea.eus/harpidetzak

E-mailez:

harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Azaroaren 9tik 15era

Euskararen agenda

MUSIKA

VILLABUENA Orbanak

Ardel Hatxa eta DJ Hemendik Harantz taldeekin batera. Pertsona errefuxiatuen aldeko jaialdiaren barruan.

Larunbata 10, 20:00etatik aurrera.

AMURRIO Lehian

Pushermen taldearekin batera.

Larunbata 10, 24:00etan, Lezamako jaietan.

GASTEIZ Muskhum

Akustika zikloaren barruan eskainiko dute kontzertua.

Igandea 11, 19:30ean, Luis Aranburu musika eskolan.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Erritu'

Kukai dantza taldearekin. 'Erritu' ikuskizuna aurkeztuko dute.

Ostirala 9, 20:30ean, Principal antzokian.

GASTEIZ 'Erlauntza'

Mireia Gabilondok zuzenduta. Itziar Atienza, Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Getari Etxegarai, Leire Ruiz eta Naiara Arnedo aktoreekin.

Osteguna 15, 20:30ean, Felix Petite antzokian.

GASTEIZ 'Zerura eroria'

Anodino Teatroa taldearen eskutik. Florentino Badiola, Aiora Sedano eta Aitor Fernandino aktoreekin.

Osteguna 15, 21:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean.



AMEZTU PRODUKZIOAK

GASTEIZ 'Skratx' ikuskizuna eta superheroi tailerra

Igandeak Jai zikloaren barruan. 3-10 urte bitarteko haurrentzat.

Igandea 11, 17:00etatik 19:00etara, Aranbizkarra ikastolan.

BERTSOLARITZA

DURA Lagun artekoa

Xabi Igoa eta Aitor Sarriegirekin.

Ostirala 9, 19:00etan, Sologanako tabernan.

ZALDUONDO Bertxoko

Lehen kanporaketa. Aroa Arrizubieta, Beñat Cano, Aitor Najera eta Jon Ruiz de Pinedorekin.

Ostirala 9, 19:30ean, elkartean.

LARREA Plaza librea

Andere Arriolabengoa eta Izar Mendigurenekin.

Larunbata 10, 19:00etan.

HAURRAK

AMURRIO 'Magiaren iraultza'

Kidam magoaren eskutik.

Igandea 11, 17:30ean, Amurrio antzokian.

GASTEIZ 'Paperezko zirkua'

Apika taldearekin. 5 urtetik aurrera.

Asteartea 13, 18:00etan, Judimendi gizarte etxean.

GASTEIZ 'Altxorra'

Familia irteera. "Hau zergatik da artea?" izango dute solasgai.

Osteguna 15, 18:00etan, Artiumen.

LAUDIO Irakurle Kluba

Haurrentzako irakurle kluba.

Osteguna 15, 18:00etan, udal liburutegian.

HITZALDIAK

GASTEIZ Maoiera

Hitz Aditza Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloaren barruan. Imanol Miner hizkuntza teknikariaren eskutik.

Asteazkena 14, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.



ARTZUBI

LARREA Sagarraren Festa

Sagar-zuku dastaketa, erreminta erakusketa eta beste hainbat jarduera.
Larunbata 10, 18:00etatik aurrera.

GASTEIZ 'Nola eraiki misteriozko nobela bat'

Miren Gorrotxategi idazlearen eskutik.
Asteazkena 14, 19:00etan, Iparralde gizarte etxea.

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ Gasteiz Calling jaialdia

Refused, Suicidal Tendencies, Sociedad Alkoholika, Dead To Me, NOFX, Adrenalized, Nations on Fire, Rat-Zinger, Not On Tour, Dag Nasty eta beste hainbat talde arituko dira.
Ostirala eta larunbata, Iradier Arenan.

GASTEIZ Raul Romo Quartet

Diskoa aurkeztuko du Gasteizko taldeak.
Ostirala 9, 19:15ean, Luis Aranburu musika eskolan.

GASTEIZ The Excitements

Larunbata 10, 21:00etan, Hell Dorado aretoan.

GASTEIZ Eliane Reyes

Asteartea 13, 20:00etan, Dendarabako aretoan.

ANTZERKIA

DULANTZI 'Como niños'

Teatrizzante taldearen eskutik.
Larunbata 19:30ean, antzokian.

GASTEIZ 'The animals and children took the streets'

1927 taldearen eskutik.
Asteazkena 14, 20:30ean, Principal antzokian.

BESTELAKOAK

GASTEIZ World Press Photo

Ronaldo Schemidt fotokazetariaren hitzaldia.
Ostirala 9, 19:00etan, Montehermoson.

KANPEZU San Martin azoka

Mendialdeko produktuen erakusketa eta salmenta, erakustaldiak, gastronomia lehiaketa, eskulanean erakusketa eta beste hainbat ekitaldi izango dira.
Igandea 11, 10:00etatik aurrera.

ADINEKO PERTSONAK ZAITZEN DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEKO PROGRAMA

**Adineko seniderik zaitzen duzu?
Lagunduko dizugu!**

ZUGATIK, HAIENGATIK
**ATSEDEN
HAR EZAZU**

